

ARAN, 723 (1992) 24. or.

RIGOBERTA MENCHU-RI, TOPA

Ahots zara, Rigoberta,
entzuten ez zaienen ahots,
entzun nahi ez zaienen ahots.
Kolonizatzaile handien aurrean,
indartsuen aurrean altxatu zara,
ahots altxatu,
zeueneko zeuentasunean
aintzakotzat har zaitzaten.
Salatzen dutenen ahots,
hiltzaileen, zapaltzaileen
beldurrik gabe
altxatu den ahots zara,
duintasunez bizitzeko eskubidea
aldarrikatzen duen ahots
gizartean
ohorezko leku bat eskatzen duten
jende apalarazien ahots,
“lurraren ahots”,
ahots sendoa,
garai-ezin emakumezkoa.

Agurtzen zaitugu,
miresten zaitugu,
alde gatozkizu,
geure hizkuntzan,
geure kulturaren,
indar handidunen bortxa,
begiramenik eza
eta irentsi-beharra
bostehundik gora urtetan jasaten
dihardugun euskaldunok.
Zeurekin gaude,
zeure ahotsean geu ere,
jendaia umilatuaren ahots
erreibindikatzaile horren
ahoskide,
beti.